



Euskal sagardoa jatorri deitura duten sagardoek kontsumoa sustatzeko "Terraza garaia, Euskal sagardo garaia" promozioa hasi da

📅 Api 30, 2018 🍷 Sagardoa 💬 0 comments



Euskal Sagardoa jatorri-deiturak, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartek eta HAZI Fundazioak sustatutako 'Terraza garaia, Euskal Sagardo garaia' promozioa aurkeztu zen apirilaren 27an. Prentsaurrekoan, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuorde Bittor Orozek, Euskal Sagardoa jatorri-deiturako koordinatzaile Unai Agirrek eta Ostalaritza Elkarteko lehendakariorde eragile Iñaki Illarramendik hartu zuten parte.

Ostalaritza Elkarteen eta HAZI Fundazioaren 'Kalitatea' proiektuaren barruan dagoen 'Terraza garaia, Euskal Sagardo garaia' egitasmoak Gipuzkoa osoko ostalaritza establezimenduen terrazetan Euskal Sagardoa jatorri deitura duten sagardoek kontsumoa sustatzea du helburu. Horretarako, apirilaren 27tik maiatzaren 13ra arte, Gipuzkoak 45 jatetxe eta tabernek Euskal Sagardoa (edalontzian edo botilan) eskainiko dute haien establezimenduetan pintxo edo errazio batekin batera.

Promozioak ikusgaitasuna izan dezan, kartelak, triptikoak, eskuorriak, kubiterak, arbelak eta beste zenbait material diseinatu dira, establezimenduen barrualdean eta terrazetan jartzeko. Gainera, kanpainak irauten duen bitartean, zozketak egingo dira eta terraza hauetan Euskal Sagardoa eskatzen dutenek bi sagardo botilako lote bat irabazteko aukera izango dute.

Zer da Euskal Sagardoa jatorri deitura duen sagardoa?

Euskal Sagardoa jatorri-deitura duen sagardoa %100 bertako sagarrarekin egin dago eta kalitate bermea du. Sagardoak Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako zigilua eta numerazioa izan ditzan, analitikak eta panel organoleptiko bat pasa beharra dauzka. Prozesu osoa HAZI Fundazioak ziurtatzen du, hasi sagastitik eta botilara arte.

Euskal Sagardoak dastatzeak

'Terraza garaia, Euskal Sagardo garaia' promozioaz gain, ostalariei zuzendutako Euskal Sagardoak hainbat dastatze antolatu dira. Donostian, Errenterian, Ordizian eta Azpeitian ospatu dira jada eta datozen asteetarako hurrengo hauek antolatu dira:

- **Maiatzak 8:** Usurbil (Sutegi kultur etxea)
- **Maiatzak 22:** Irun (Casino jatetxea)
- **Maiatzak 29:** Tolosa (Txinparta Elkarte)

Ikusi "Terraza garaia, Euskal sagardo garaia" egitasmoan parte hartzen duten establezimenduen zerrenda

Iturria: www.euskalsagardoa.eus

Bilatzailea

	Bilatu
----------------------	--------

Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak

Museoak

Sagardoa



Sagardotegiak

Sagarra

Sagastia

Turismoa

Artxiboak

Hautatu hilabetea

LAGUNTZA BEHAR DUZU?



SAGARDOAREN
LURRALDEA
el territorio de la uva

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



ESPERIENTZIAK

- Zure plana erreserbatu
- Neurrira egindako esperientziak
- Hautatutako ibilbideak
- Beste proposamenak hemendik gertu
- Nola mugitu
- Non lo egin
- Gidak eta informazio praktikoa

SAGARDOTEGIAK

- Sagardotegia erreserbatu
- Sagardotegia aukeratu
- Garraioa sagardotegietara
- Sagardotegiaz goatzeko gomendioak

SAGARDOETXEA

- Sagardoetxea – museoa
- Erakusketa eta bisita guneak
- Bisita motak
- Nola iritsi eta sarbideak
- Tarifak eta ordutegiak
- Bisita erreserbatu
- Bisita birtuala
- Dokumentazio Zentroa

SAGARDO FORUM

- Informazio orokorra
- Argazkiak
- Hitzaldiak

AGENDA

BLOGA

HEDAPENA

- Boletina
- Buletinera harpidetza
- Sare sozialak



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua
LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#) [PROIEKTUAK](#) [AKORDIOAK](#) [KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)

